

Eguzkigrafiak

Alejo Moreno Sainz diseinatzaile grafikoa da. Diseinu-kontuetarako, behin baino gehiagotan ibiltzen zen argazki zaharren efektuak topatu nahian. Halako batean, pentsatu zuen ideia ona izan zitekeela asfaltiko garaietako tresna bat erabiltzea emaitza hori lortzeko. Horrela egin zuen topo argazkilaritza esteno-peikoarekin. Eta mundu horretan sartzen ari zela ezagutu zituen solargrafiak, Diego Lopez Calvín argazkilaria soriarrak (Espainia) Slawomir Decyk eta Pawel Kula poloniarrekin batera asmatutako teknika.


Esposizio luzeko argazkien bidez Eguzkiak zeruan egiten duen bidea (ekliptika) jasotzean datza. Eguzkigrafiak deitu die Alejok. "Teknika oso sinplea da, kamera ilun bat erabiltzea da", dio. Freskagarrien ontziak erabiltzen ditu, 0,2 mm-ko zulotxo batekin, eta barrua argazki-paperez estalita.

Eguzkiaren ibilbidea jasotzeko, garrantzitsua da Eguzkiak ematen duen alderantz begira jartzea (gure kasuan, hegoalderantz). "Orduan, Eguzkia


ateratzen da, argia zulotik sartzen da, eta, Eguzkia zeruan mugitu ahal, papera errez doa. Eta, aldi berean, zuhaitzak, etxeak edo aurrean da-goena ere agertzen da", azaltzen du Alejok.

Normalean, sei hilabeteko esposizioak egiten ditu, solstiziotik solstiziora; horrela harrapatzen ditu Eguzkiaren arkurik baxuenetik (neguan) altuenera (udan), edo alderantziz.


Lurreko puntuaren arabera, desberdinak dira eguzkigrafiak. Alejok, oraingoz, Euskal Herrian atera ditu guztiak. Ongi pentsatu behar izaten du non jarri, sei hilabetez inork edo ezerk ukitu ez dezan. "Gertatu izan zait desagertzea, eta sekulako atsekabea da", dio Alejok. Eta, hain gailu sinpleak izan arren, susmo txarrak ere sor ditzake. "Garai batean, albisteetan atera zen Baltimoren (AEB) halako kamera bat zegoela, eta lehergaiak desaktibatzen espezializatutako agenteak joan zirela".




Alejoren argazki gehiago:
<https://www.flickr.com/photos/garunaborbor/garunaborbor/>



Ziburuko portuan hartutako irudia. Esposizio luzearen eraginez, itsasoko urak irudi lauso bat sortu du.



Urdazuri ibaiaren bazterrean hartutako irudia. "Eguzkiaren isla harrapatuko ote zuen argitu nahi nuen", dio Sainzek. "Emaiza ederra iruditzen zait".



A63 autopistako zubi batetik hartutako irudia, Lapurdin.
"Kameraren barrura sartutako urak sortu zituen orbanek
ukitu berezia ematen diote irudiari".